# Gertu Kultura Manifestua

Kulturaren bidezko gizarteratze-programa bat gara, eta kultura-programatzaileek, erakundeek eta gizarte-zerbitzuek hartzen dute parte bertan. Egoera ahulenean dauden pertsonen kultura eskuratzeko eskubidea errealitate bihurtzeko lan egiten dugu.

Kultura gizartearen ezinbesteko beharrizan gisa aldarrikatzen dugu.

Komunitate anitza eta komunitate hori osatzen duten pertsonen beharrak errespetatzen dituena defendatzen dugu. Esperientziari eta parte-hartze kulturalari esker partaide gara.

Uste dugu guztiok lagundu behar dugula bidegabekeria sozialak gainditzen, nahiz eta erantzule zuzenak ez izan. Elkarri laguntzeko gaitasuna eta betebeharra dugu. Horretarako, gizartearen eta kulturaren artean zubiak eraikitzeko hezkuntza sustatzen dugu.

Inklusioa bermatuko duen eta parte hartzeko aukera-berdintasuna zainduko duen kultura sustatzen dugu.

Ez dugu publikoak erakartzeko programa bat izan nahi, ezta laguntza-programa bat ere. Ahulezia-egoeran dauden pertsonei, gehien behar dutenei, lehentasuna emango dien kultura defendatzen dugu. Kulturaren efektu eraldatzailean sinesten dugu.

Guztiontzako kultura bermatzeko konpromisoa hartzen duen gizarte baten alde lan egiten dugu.

**Kultura irisgarria eta inklusiboa posible delako.**



gertu
kultura
inklusiorako
atea

gertukultura.org